

Hauteskunde sindikaletako emaitzak

2021eko otsaila



www.lab.eus

LAB izan da 2020an gehien hazi den sindikatua Hego Euskal Herrian

Azken hamarkadan, LAB ia 4 puntu eta 549 ordezkari igo da Hego Euskal Herrian, gainontzeko sindikatuek ehunka ordezkari galdu dituzten bitartean; martxoaren 22an enpresa txikietako hauteskunderen kanpaina hasiko da Ipar Euskal Herrian

Afiliazioan ere gora egin du: %3 hazi da 2020an eta ia 45.000 afiliatu ditu Euskal Herri osoan

EAEko datu ofizialak eta Nafarroako behin-behinekoak kontuan hartuta, 2020ko hauteskunde sindikalen balantzea oso ona izan da LAB sindikatuarentzat, eta berriro ere maximo historikoetan itxi du urtea: Hego Euskal Herrian 4.528 ordezkari ditu, ordezkari osoaren %19,32. Ordezkari kopuruan hazi den sindikatu bakarra da (24 gehiago), ordezkari kopuru osoa murriztu den garaian; honela, 0,39 puntu hazi da portzentaia dagokionez.

Gainontzeko sindikatuek, aldiz, behera egin dute ordezkari kopuruan: ELAk 168 galdu ditu, UGTk 152 eta CCOOk 86. Portzentaia, ELA -0,15, CCOO -0,06 eta UGT -0,44.

Hego Euskal Herria	2019		2020		Delegatu kopuruan aldea 2019-2020	Portzentaian aldea 2019-2020
LAB	4.504	%18,93	4.528	%19,32	24	0,39
ELA	8.678	%36,47	8.510	%36,32	-168	-0,15
CCOO	4.730	%19,88	4.644	%19,82	-86	-0,06
UGT	3.387	%14,24	3.235	%13,80	-152	-0,44

2020ko datuek, azken hamarkadako LABen tendentzia indartu dute: 2010ekin alderatuta, 551 ordezkari gehiago ditu, 3,99 puntu irabaziz. Aldiz, gainontzeko sindikatuek ehunka ordezkari galdu dituzte: 711 ELAk, 898 CCOOek eta 1.271 UGTk. Esanguratsua da estatu mailako bi sindikatuen gainbehera, ordezkari kopuruan ezezik portzentaia ere nabarmena (1,54 puntu galtzen ditu CCOOk eta 3,57 UGTk). Honela, duela hamar urte LAB Hego Euskal Herriko laugarren sindikatua zen eta bigarren sindikatutik 1.565 ordezkari zegoen bitartean, egun bigarren lekua 116 ordezkari eskasera dauka.

Hego Euskal Herria	2010		2020		Delegatu kopuruan aldea 2010-2020	Portzentaian aldea 2010-2020
LAB	3.977	%15,33	4.528	%19,32	551	3,99
ELA	9.221	%35,54	8.510	%36,32	-711	0,78
CCOO	5.542	%21,36	4.644	%19,82	-898	-1,54
UGT	4.506	%17,37	3.235	%13,80	-1271	-3,57

Hauteskunde sindikalak Nafarroan

LABen azken urteotako hazkundera nabarmena izan da lurralde guztietan eta bereziki Nafarroan. Herrialde honetan, LABek 27 ordezkari irabazi eta 0,76 puntu igo ditu 2020an zehar. 2010eko datuekin alderatuta, 261 ordezkari eta 5,1 puntu igo ditu LABek. Honela, 2010ean Nafarroako lehen sindikatu zen UGTtik 1.175 ordezkariara zegoen bitartean, 2020an lehen sindikatu bilakatu den CCOOetik 394ra dago. Aipatzekoa da, halaber, herrialde honetan UGT eta CCOO 2010ean gehiengo izatetik (%55,96 bien artean) 2020an %48,22 izatera igaro dira. Bistan denez, nafar langileek bizkarra eman diote Patronalaren neurriaraz ezarritako elkarrizketa sozialaren ereduari.

Nafarroa	2019		2020		Delegatu kopuruan aldea 2019-2020	Portzentaian aldea 2019-2020
LAB	1.052	%16,93	1.079	%17,69	+27	+0,76
ELA	1.561	%25,13	1.469	%24,08	-92	-1,05
CCOO	1.486	%23,92	1.473	%24,14	-13	+0,22
UGT	1.417	%22,81	1.358	%22,26	-59	-0,55

Nafarroa	2010		2020		Delegatu kopuruan aldea 2010-2020	Portzentaian aldea 2010-2020
LAB	818	%12,59	1.079	%17,69	+261	+5,1
ELA	1.993	%30,69	1.469	%24,08	-524	-6,61
CCOO	1.641	%25,27	1.473	%24,14	-168	-1,13
UGT	1.366	%21,03	1.358	%22,26	-8	+1,23

Hauteskunde sindikalak EAEn

EAEn dagokionez, LAB bigarren sindikatu gisa egonkortu egin da, hirugarrena den CCOOetik tartea zabalduz. Hamar urteetako ibilbideari erreparatuta, LABek 311 ordezkari irabazten ditu, gainontzeko sindikatuek ehunka ordezkari galtzen dituzten bitartean; eta portzentaiaetan 3,66 puntu igotzen ditu.

EAE	2019		2020		Delegatu kopuruan aldea 2019-2020	Portzentaian aldea 2019-2020
LAB	3.452	%19,64	3.449	%19,90	-3	0,26
ELA	7.261	%41,3	7.152	%41,27	-109	-0,03
CCOO	3.244	%18,45	3.171	%18,30	-73	-0,15
UGT	1.826	%10,39	1.766	%10,19	-60	-0,2

EAE	2010		2020		Delegatu kopuruan aldea 2010-2020	Portzentaian aldea 2010-2020
LAB	3.138	%16,24	3.449	%19,90	311	3,66
ELA	7.824	%40,5	7.152	%41,27	-672	0,77
CCOO	3.878	%20,07	3.171	%18,30	-707	-1,77
UGT	2.494	%12,91	1.766	%10,19	-728	-2,72

Hauteskunde sindikalak Ipar Euskal Herrian

Ipar Euskal Herriari dagokionez, enpresa txikietako hauteskunde sindikalen kanpaina hasiko da martxoaren 22an. Berriz ere, hauteskunde hauek ez dute Ipar Euskal Herria aintzat hartzen: Akitania Berria da hautes-eremua. Duela bost urte egin bezala, LABek bere hautagaitza aurkeztuko du, Ipar Euskal Herria aintzat hartu dadin aldarrikatuz. Gure lurraldeko datu ofizialak eskuratzetik ez badago ere, kalkuluen arabera aurrekoetan LAB izan zen Ipar Euskal Herrian bozkatuena eta postu hori berrestea da gure helburua.

Afiliazioa (Euskal Herria)

2020. urtea 44.892 afiliaturekin amaitu zuen LABek. 2019rekin alderatuta, %3,09ren igoera suposatzen du; 2010arekin alderatuta, %9,56ren igoera.

Atzerago joanda, hauxe datua: 1991tik LABek kasik hirukoiztu egin du bere afiliazioa (1991an, 15.765 afiliatu zituen LABek).

Emakumeek gero eta pisu gehiago daukate LABen: 2013an, afiliatuen %38,56 emakumeak ziren; 2020an, aldiz, %42,42.

Era berean, aipatzekoa da gero eta gazte gehiago afiliatzen ari dela LABen: 2020an afiliatu direnen artean, ia erdiek (%48) 30 urte baino gutxiago dute.

ONDORIOAK

- LAB sindikatu independentista, sozialista, feminista eta euskalduna da. Euskal Herrian gehiengo zabal batek defendatzen dituen baloreak dira, gehiengo zabala gara aldaketa soziala eta erabakitzeko eskubidea defendatzen dugunak eta horren isla da geroz eta langile gehiagok bat egiten dutela LABekin.
- LABek hazkunde fasean jarraitzen du, hala hauteskundeetan nola afiliazioan. Euskal langileak LABen borrokarako konpromisoa saritzen ari dira. Langileen lan eta bizi baldintzak borrokatzen ditugu, horretarako proposamen eraldatzaileak eginez, irekitzen ari den aro berrian langileen beharrak, bizitza erdigunean kokatzeko, orain gutxi aurkeztu dugu Programa Sozioekonomikoa eta Euskal Lan Kodea eta Gizarte Segurantzarako legea. Inposatu zaizkigun erreforma eta murrizketek bultzatzen duten langile zatiketa eta prekarizazioari aurre egin eta langileen eskubideen defentsan eraginkorrakoak izateko eredu sindikala berri egin dugu.
- Sindikalismoa birpentsatu eta bazterrean egon direnak erdigunera ekartzeko edota perspektiba feminista zeharlerro moduan gure sindikalismoan txertatzeko eginiko saiakera fruitua ematen ari da. LABen afiliatzen eta bozkatzten dutenen artean, emakumeen, gazteen eta migranteen kopuruak nabarmen egin du gora. LABek jarraituko du ildo horretan lan egiten, langile sektore guztientzat tresna eraginkorra izateko eta langile subjektua berrosatzeko.
- Ikuspegi zentralista duen eta Patronalaren neurriko elkarrizketa sozialaren eredian parte hartzen duen sindikalismoa gainbehera doa. Euskal langileek bertako sindikatuak nahi dituzte bertako lan baldintzak eta hitzarmenak defendatzeko. EAEko eta Nafarroako Gobernuak elkarrizketa sozialaren eredu honi babes emateari utzi behar diote.
- Bizitzen ari garen sindemiari, lan eta bizi baldintzen prekarizazioari aurre egiteko, borroka sindikalak areagotu behar dira. Eta LAB indartsu sartu da borroka ziklo berri honetan. Aldaketak etorriko dira, aldaketen norabidea zein izango den, neurri handi batean indar korrelazioen arabera izango eta LABek azken urteetan bildu duen indar hau langile eta herri moduan ditugun erronken mesedetan baliatuko du.

GEHIGARRIA: Datuak herrialdeka (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa)

Araba	2019		2020		Delegatu kopuruan aldea 2019-2020	Portzentaian aldea 2019-2020
LAB	462	%14,56	461	%14,68	-1	+0,12
ELA	1.195	%37,67	1.162	%36,99	-33	-0,68
CCOO	595	%18,76	618	%19,68	+23	+0,92
UGT	495	%15,61	479	%15,25	-16	-0,36

Araba	2010		2020		Delegatu kopuruan aldea 2010-2020	Portzentaian aldea 2010-2020
LAB	366	%10,73	461	%14,68	95	3,95
ELA	1.207	%35,38	1162	%36,99	-45	1,61
CCOO	706	%20,69	618	%19,68	-88	-1,01
UGT	691	%20,25	479	%15,25	-212	-5

Bizkaia	2019		2020		Delegatu kopuruan aldea 2019-2020	Portzentaian aldea 2019-2020
LAB	1.390	%15,75	1.376	%15,87	-14	0,12
ELA	3.558	%40,33	3.514	%40,53	-44	0,2
CCOO	1.910	%21,65	1.828	%21,08	-82	-0,57
UGT	1.019	%11,55	989	%11,41	-30	-0,14

Bizkaia	2010		2020		Delegatu kopuruan aldea 2010-2020	Portzentaian aldea 2010-2020
LAB	1.233	%12,74	1.376	%15,87	143	3,13
ELA	3.798	%39,24	3.514	%40,53	-294	1,29
CCOO	2.222	%22,96	1.828	%21,08	-394	-1,88
UGT	1.383	%14,29	989	%11,41	-394	-2,88

Gipuzkoa	2019		2020		Delegatu kopuruan aldea 2019-2020	Portzentaian aldea 2019-2020
LAB	1.600	%28,65	1.612	%29,22	12	0,57
ELA	2.508	%44,91	2.476	%44,88	-32	-0,03
CCOO	739	%13,23	725	%13,14	-14	-0,09
UGT	312	%5,59	298	%5,4	-14	-0,19

Gipuzkoa	2010		2020		Delegatu kopuruan aldea 2010-2020	Portzentaian aldea 2010-2020
LAB	1.539	%24,71	1.612	%29,22	73	4,51
ELA	2.819	%45,26	2.476	%44,88	-343	-0,38
CCOO	950	%15,25	725	%13,14	-225	-2,11
UGT	420	%6,74	298	%5,4	-122	-1,34